

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

400.000 euroko diru-laguntza eman da irakaskuntzako 27 ikastetxe publikoren birmoldaketa-obretarako

Dagozkien udal eta kontzejuek egin beharreko obrak 2015eko azaroaren 1a baino lehen amaitu beharko dira

Viernes, 24 de julio de 2015

Hezkuntza Departamentuak 400.000 euroko diru-laguntza eman du Nafarroako hainbat udalerritako irakaskuntzako 27 ikastetxe publikoren hobekuntza- eta birmoldaketa-obrak egiteko, NAOean argitaratutako ebazpenaren arabera ([141. zenbakia](#), [uztailaren 22koa](#)).

Zehazki, [laguntza](#) horien hartzaileak ondorengo udal eta kontzejuek dira: Arantza; Arbizu; Areso; Azagra; Baztan; Bera; Beriain; Berriozar; Betelu; Castejon; Cintruenigo; Doneztebe; Lizarra; Etxarri Aranatz; Funes; Irurtzun; Legasa; Lesaka; Mendabia; Miranda-Arga; Noain; Otsagabia; Orkoien; Oteitza; San Adrian; Ultzama; eta Zugarramurdi, hezkuntzako eraikinak zaindu eta mantentzeko arduradun modura.

Obrak aurten azaroaren 1 baino lehen amaitu beharko dira, eta ondorengo lanak dira, funtsean: iragazgaiztea, instalazioa elektrikoak eta berokuntza, estalkiak berritzea, isuriak konpontzea, iturgintza eta hodietako lanak, komuna eta sarbideak egokitzea, edo ebakuazio eta segurtasuneko hobekuntza-jarduerak, besteak beste.

Ebazpenak honako aukera hau jasotzen du: laguntza horiei uko egiten bazaie, soberakina azken onuradunaren onartutako eskaerari erantzuteko erabili ahal izatea, Barriozarko Udala, kasu honetan, 4.727 euroekin (baldin eta gehienez 5.909 euroko gastua justifikatzen badu, aurkeztutako aurrekontuaren arabera).